

ETXAURI
Ezkontzak arautzen dituen udal ordenantza. Behin betiko onespena

Etxauriko Udalak, 2015eko urriaren 2an egin osoko bilkuran, hasiera batean onetsi zuen Ezkontzak arautzen dituen udal ordenantza. Hura 2015eko 206. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, urriaren 16an.

Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan xedatuari jarraikiz, maiatzaren 31ko 15/2002 Foru Legeak aldatu baitzuen, eta jendaurrean egoteko epea inork alegaziorik aurkeztu gabe iraganik, ordenantza hori behin betiko onetsi eta osorik argitaratzeko agindu da, behar diren ondorioak izan ditzan.

Etxaurin, 2015eko azaroaren 26an.–Alkatea, Idoia Aritzala Etxarren.

**EZKONTZAK EGIN ETA BAIMENTZEA
ARAUTZEN DUEN ORDENANTZA**

1. artikulua. Ordenantza honen xedea da ezkontzak egin eta baimentzea arautzea Etxauriko Udalaren mugapean eta zergapeko egintza ezkontzak egiteko zerbitzu publikoa ematean datza, Kode Zibilaren aldaketari buruzko abenduaren 23ko 35/1994 Legeak eta hura garatzeko gainerako araudiak ezarri bezala.
 2. artikulua. Ezkontza zibila egin gogo dutenek kasuan kasuko eskaera aurkeztuko dute Etxauriko Udaleko bulegoetan, bi hilabete lehenago. Eskaera eginda, aurkeztu beharreko agirien zerrenda emanen da.
- Ezkontzaren eguna eta ordua aukeratzen ahal dituzte, eskatzen duten egunerako dauden aukeren arabera.
3. artikulua. Eskaera ebatziko da, ezkontza egiteko eguna eta ordua zehaztuz, eta interesdunei jakinaraziko zaie.
 4. artikulua. Zerbitzu hau eskatzen dutenak behartuta daude tasa bat ordaintzera, nahiz eta ezkontza ez den egiten, interesdunengatik bada. Ordainagiria eskaeraren gainerako agiriekin batera aurkeztuko da.
- Gainera, udaletxean egin litekeen edozein kalte edo hondatzeren erantzuleak izanen dira.
5. artikulua. Ordaindutako zenbatekoa itzuliko da ezkontza egiten ez bada interesdunei egotzi ezin zaizkion arrazoiengatik.
 6. artikulua. Zerbitzua emateko tasen zenbatekoa 1. eranskinetako taulari dagokiona izanen da.
 7. artikulua. Ezkontza erlijiosoen tramitazioan, lehenbiziko guztizko partziala (Erroldaren arabera) aplikatuko da.
 8. artikulua. Tasak KPIren arabera eguneratuko dira urtero, eurotan biribilduta.

Azken xedapena.–Ordenantza honek indarra hartuko du bere testu osoa Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztailaren 2ko 6/1990 Foru Legearen 325. artikuluan aurreikusitako epea iraganik.

1. ERANSKINA EZKONTZAREN TASAK (BIKOTE BAKOITZEKO)

TASAK	ERROLDA		ORDUTEGIA		TOKIA		GUZTIRA
	Erroldatua	Erroldatu gabea	Lanegunetan: astel. – ostir., 9:00 - 14:00	Lanik gabeko egunetan: larunbat, igande eta jaiegunetan	Udaletxean	Udaletxetik kanpo	
	0 euro	50 euro	0 euro	75 euro	0 euro	75 euro	
KASU POSIBLEAK							
Gutxienez ezkontideetako bat erroldaturik, udaletxean eta laneko ordutegian							0 euro

Gutxienez ezkontideetako bat erroldaturik, udaletxean eta laneko ordutegitik kanpo	75 euro
Gutxienez ezkontideetako bat erroldaturik, udaletxetik kanpo eta laneko ordutegian	75 euro
Gutxienez ezkontideetako bat erroldaturik, udaletxetik kanpo eta laneko ordutegitik kanpo	150 euro
Ezkontideetako bat ere erroldaturik egon gabe, udaletxean eta laneko ordutegian	50 euro
Ezkontideetako bat ere erroldaturik egon gabe, udaletxean eta laneko ordutegitik kanpo	125 euro
Ezkontideetako bat ere erroldaturik egon gabe, udaletxetik kanpo eta laneko ordutegian	125 euro
Ezkontideetako bat ere erroldaturik egon gabe, udaletxetik kanpo eta laneko ordutegitik kanpo	200 euro
L1516032	

Iragarkiaren kodea: L1516032